

PASADAS LAS 4

“SOKA BAKOITZAK
LEKU BAT,
LEKU BAKOITZAK
ISTORIA,
OROIMENEAN GORDETZEN
DIREN HORIETAKOA.”

ROUTE

6.6

Musika ikuskizuna hiru musikari eta bi antzezlerentzat

MUSIKAREN KONPOSIZIOA ETA
INTERPRETAZIOA:
Luis Giménez, Edurne Arizu
eta Txus Eguílaz

ANTZEZLEAK:
Belén Otxotorena eta Inma Gurrea
(gaztelaniaz)
Izaskun Mujika eta Patrizia Eneritz
(euskaraz)

GIDA DIDAKTIKOA, DRAMATURGIA
ETA EKOIZPENA:
Pasadas las 4

LAGUNTZEN DU

Nafarroako
Gobernua



Gobierno
de Navarra



pasadaslas4
COMPAÑIA TEATRAL

ROUTE 6.6 musika-ikuskizuna Lehen Hezkuntzako Lehen eta Bigarren Zikloko ikasleei musika eta ipuinak modu atseginean eta jolastian eskaintzeko asmatua da.

Belén Otxotorenak eta Inma Gurreak (Pasadas las 4) gogo handiz ekin diote proiektu honi. Atsegin handiz aztertzen dute ipuinen indarra eta musikak eskaintzen dituen aukerak. Oraingo honetan, era askotako istorioak eta ikuskizunerako bereziki egindako musika garaikidea uztartu dituzte; musika hori ere zuzenean eskainiko da.

Pasadas las 4 konpainiaren giltzarrietako bat musika (batik bat klasikoak) eta antzerkia uztartzea izan da.

Ikuskizun berri honekin, **ibilbide literario eta musikal** berri bati hasiera eman nahi diote, haurrei eta haiekin datozen helduei zer errepertorio atsegin zaien ikertuz, lehendik ere egin izan duten bezala.

Pasadas las 4 konpainiak ipuinen magiari ekin dio berriro, *Ehunzango baten ipuinak: batzuk zeharrez doaz, besteak aldrebes* ikuskizunean egin zuten bezala. Antzerki barruko ipuinak heziketa-ahalmen handia du. Edertasun literarioa, gozamina, irudimena eta sentikortasuna eta gauza gehiago garatzen ditu; gainera, ipuinak garrantzi handia du ikaskuntzan eta balioak barneratzeko orduan.

Ipuinaren kulturak pentsatzeko eta sortzeko askatasuna aldarrikatzen du, ustekabeko erreakzioak eragiten ditu. Oso bide humanizatua eskaintzen du, umorez eta samurtasunez; ordenagailuen, telebistaren, mugikorraren eta halakoen eraginaren bestelakoa da.

Horregatik ematen dio halako garrantzia ipuinak kontatzeari Pasadas las 4 konpainiak. Haurrek oraindik begiak prest dituzte harritzeko, eta belarriak adi entzuteko. Izan ere, entzunak izateko asmatzen dira ipuinak, eta "okerrenean" irakurriak izateko. Machadok esan bezala:

**Norbaitek kontatu arte,
ipuinak ipuin dira.
Norbaitek kontatzean,
ipuinak egile gabeak dira.**

Hala ere, oraingo honetan, Pasadas las 4 konpainiak garrantzi berezia eman nahi die ipuin hautatuen egileei; izan ere, haurrek eta helduek gehiago irakurriko balute Gloria Fuertes edo Juan Kruz Igerabide edo Ursula Wölfel, mundua, zalantzarik gabe, humanoagoa, poetikoagoa eta atsegina izango litzateke. Gloria, Ursula zein Juan Kruz letren apailatzaileak dira, eta gure konpainiak haien lana zabaldu nahi du, merezi duten oihartzuna izan dezaten bai haiek bai haien lanek.



Iruñea, 2019ko urriaren 3a.

Irakasle estimatuak:

Belen Otxotorena eta Inma Gurrea gara, Pasadas las 4 antzerki-taldekoak eta **ROUTE 6.6** ikuskizunaren egileak, eta orobat esku artean duzuen gida didaktiko honen egileak.

Beste egitarau batzuetan ez bezala, oraingo honetan ez dago aldez aurretik ezer prestatu beharrik. Gida didaktikoa ondoren lan egiteko pentsatua dago; ipuinak eta musika gozatzerantz etortzea nahi dugu, aldez aurretik ezer informatu gabe. Hori bai, ENTZUTEKO gogo handiz etortzea nahiko genuke, irudimena MAGIaren tonuan afinatuta.

Ikuskizunaz gozatu ondoren, gehien interesatzen zaizkizuen ekintzak aukeratu ditzakezue. Oso ugariak dira, eta ziur zuen ikasleei ondo datorkien zerbait aurkituko duzuela.

Jaso ezazue gure agur beroa eta esker ona, eskolako pertsonekin egiten duzuen lanagatik.

Belén Otxotorena eta Inma Gurrea



PASADAS LAS 4

Pasadas las 4 1994 urtean sortu genuen; geroztik helduentzako nahiz haur eta familientzako antzerkia landu dugu: *Te lo juro por mi madre que me las voy a cobrar* (1994), *Baby Boom en el paraíso* (1997)... 1995an, Certamen de Teatro Joven delakoa irabazi gehuen, Nafarroako Gobernuko Gazteria Sailak antolatu, eta gazte izateari inoiz ez uztea erabaki genuen, antzerki alorrean gutxienez.

2002an hasi genuen ipuinak kontatzearen abentura; orduan sortu genuen *Cuentos de risa con Luisa y Marisa*; egitarau horrekin ibili gara liburutegi, eskola, museo, antzerki eta kultura-etxeetan, hala Nafarroan, nola Madrilan, Aragoian, Euskadin, Murtzian, Gaztela eta Leonen, Valentzian, Errioxan, Galizian, Ceutan, Kanarietan eta Kolonbian. Ipuinei esker, ilargiraino heldu gara eta hozka egin diogu; jira eta bira ibili gara, errusiar kolovok harro baten erritmoan, eta erratz baten gainean hegan egin dugu leku urrunetara, non “abuztuan eta asteartez ateak jaiotzen diren aldez edo moldez”.

Istorioak kontatzen ditugu etengabe, bakarka edo lagunduta, ganbera-musikako taldeekin edo orkestra baten laguntzarekin, gure ikuskizunak eskainiz, hala nola, *Ehunzango baten ipuinak: batzuk zeharrez doaz, besteak aldrebes*; *Ausarta joskina!*; *El burlador sin sardina*, eta abar.

Ploc, ploc... PLIK!, 0 eta 3 urte arteko haurrentzako (eta 3 eta 4 urteko ikasleentzako) ikuskizun musikalarekin Kolonbiako Kultura Ministerioaren ESTÍMULOS 2016 deialdia irabazi genuen eta gure ikuskizuna Medellineko Casa Teatro El Poblado eta Bogotako Gran Teatro Mayor izenekoan aurkeztu genuen. Formatu handiko ikuskizunak ere zuzendu izan ditugu: 90. eta 95. Iruñeko Musika Bandaren Urteurrena eta Bikaintasunaren Nafarroako Saria. Bestalde, tailerrak eta topaketak antolatzen ditugu, musikariei taula gainean kontzientzia hartzen laguntzeko, eta musikako nahiz antzerkiko heziketa-proiektuetan ere parte hartzen dugu.



ARGUMENTUA

Luisak eta Marisak herentzia bat jaso dute: gitarra elektriko bat; harekin zeharkatu zuen mundua osaba Libertok Iparretik Hegora eta Ekialdetik Mendebaldera.

Baina ez dakite soka bakoitzaren atzean abentura bat daukatela bizitzeko, ipuin bat ikasteko, musika bat entzuteko.

Eguneroko baten antzera, gitarrak gordeta dauzka osaba Libertok harekin bitzako une guztiak.

W Soka bakoitzak leku bat,
leku bakoitzak istorioa,
oroimenean betiko
gordetzen diren horietakoa. W

PARTAIDEEN ZERRENDA



GITARRA ELEKTRIKOA ETA KOROAK:
Luis Giménez

THEREMIN, AHOTSA ETA TEKLATUAK:
Edurne Arizu

BATERIA ETA PERKUSIO TXIKIA:
Txus Eguílaz

ANTZEZLEAK (GAZTELANIAZ):
Belén Otxotorena e Inma Gurrea

ANTZEZLEAK (EUSKARAZ):
Izaskun Mujika y Patrizia Eneritz

ARGI DISEINUA ETA TEKNIKARIA:
Javier San Felipe, GLOBAL Servicios Culturales

ESZENOGRAFIA, JANTZIEN DISEINUA ETA DISEINU GRAFIKOA:
Beatriz Menéndez

JANTZIGINTZA ETA ATREZZO:
Gema Martínez - Beatriz Menéndez

ANTZEZTEKO AHOLKULARITZA:
Emi Ekai

ARGAZKIAK:
Jesús Garzarón

BIDEO GRABAKETA:
Miguel Eraso

ITZULPENA:
Juan Kruz Igerabide

JATORRIZKO IDEIA, DRAMATURGIA ETA EKOIZPENA:
Pasadas las 4



MUSIKA ERREPERTORIOA*

ROUTE 6.6

Luis Giménez

Tximinoa eta erbia

Luis Giménez

Hamabi printzesa dantzari

Luis Giménez

Printzesa rockeroen dantza

L. Giménez, E. Arizu eta Txus Eguílaz

Errusiar kanta

Luis Giménez

New Yorken paseatzen

Luis Giménez

Sehaska-kanta

Luis Giménez

Thereminerako kontzertua

L. Giménez, E. Arizu eta Txus Eguílaz

MI-Missouri

Luis Giménez

Kapela amorratua

L. Giménez, E. Arizu eta Txus Eguílaz


Edozertarako plan bat egiten zuen emakumea

Luis Giménez


Gloria Fuertes-en Bluesa

Eduarne Arizu

* Musika ikuskizunerako asmatua da osorik.



GITARRA ELEKTRIKOA



OSABA LIBERTOREN ROUTE 6.6 jarraituz

Badakizue ROUTE 66 amerikar ibilbide bat dela, EEUU Chicagotik Los Angelesera zeharkatzen duena?




Hala ere, kontzertu egunean ikusi bezala, osaba Libertok bere ibilbidea asmatu zuen, bere bizitzari eta bere gitarrari zuzenean lotua: **ROUTE 6.6**, sei soka, sei istorio



Osaba Libertok bere egunerokoan kontaktzen duen bezala, herrialde asko zeharkatu zituen bizitzan zehar, baina, gitarraren barruan gordetzeko, sei leku eta sei istorio aukeratu zituen, gehien hunkitu zutenak hain zuzen.

Zuekin partekatu nahi genituzke bidaiaren zenbait ñabardura, zuen ikasleek esperientzia sakonki bizi dezaten.

Kontzertu egunean Luisak eta Marisak notak beste ordena batean jo bazituzten ere, gida honetan gitarraren notak berezko ordenan agertzen dira:



Abiatuko gara "ROUTE"an barrena?



MINAS GERAIS, BRASIL

1956

Minas Gerais Brasileko Hego-ekialdeko estatu nagusia da, 56.970 km²koa; itsasotik urrun dauden mendi eta zelaiz osatua dago. Hiriburua, Belo Horizonte, jende jator eta abegikorrez osatua dago. Aberastasun natural eta paisaia ederrak ditu, eta gertaera historiko garrantzitsuak gertatu ziren han. Bertakoak hantxe bizi ziren portugaldarrak agertu zirenean; baina, urrea aurkitu zutenean, jende ugari joan zen hara. Urreak aberastasuna ekarri zuen, eta ekonomiaren nahiz kulturaren garapena. Oinarri industrial sendo eta nekazaritza ugari eta emankorrari esker, Brasilgo estaturik garatuenetakoa da.



“Tximinoa eta erbia” EGILE EZEZAGUNA (Alegia)

Lan bat nork egin duen ez dakigunean, egile ezezaguna duela esaten da. Historian zehar, halako adibide asko dago. Erdi Aroan, ahozko tradiziotik herri-konposizio ugari transkribatu ziren sinadurarik gabe. Batzuetan, egileek ez dute beren izena jarri nahi, arazo sozial, politiko edo erlijiosoak saihesteko. *Tximinoa eta erbia* alegia bat da, eta alegia istorio labur bat da, denboran kokatu gabea, narratzaile batek kontatua, eta pertsonaiak animaliak izan ohi dira; gaietan, gizakien akatsak eta portaera txarrak jorratzen dira. Oso eskema sinplea izan ohi du: egoera aurkeztea, arazoa erakustea, eta arazoa konpontzea edo ez konpontzea; ikaskizun batekin amaitu ohi da (aholku bat edo ikaskizun bat esaldi batean emana, errimaturik edo ez)

Minas Gerais, 23 de septiembre de 1956

“Maletak desegin berri ditut: hiru alkandora, galtza pare bat, korderno hasi gabea eta beti neurekin daramadan gitarra elektrikoa. Eskuan, honaino ekarri nauen hegazkin-txartela: bihotzean, esperientzia berriak bizitzeko irrika. Gaztetxo nintzenetik jotzen dut gitarra: orain, bidaiatu egin nahi dut harekin, beti amestu izan ditudan munduko lekuak bisitatu.

Brasil zain daukat, eta dena ikusi nahi dut; Amazonas, Río de Janeiro, Salvador de Bahía, Minas Gerais... Estatu bakoitza, herri bakoitza bisitatu... Dena ukitu; landare tropikalen ygaritasuna, pertsonen eskuak, musika-tresna herrikoiak... Dena entzun nahi dut: animaliak, Amazonas ibaiaren murmurioa, musika, jendearen ahotsak...

Esaten dutenez, Brasilen, herri bakoitzaren azpian, euri tanta bakoitzaren alboan, egunsenti bakoitzaren atzean, musika dago.

Bidaia handi baten hasiera dudala iruditzen zait”.

BRASIL EZAGUTUZ



1. Zer iruditzen osaba Libertoren pausoen atzetik joatea?

Imagina dezagun Brasileko mapa dugula esku artean.

Atlas baten laguntzaz, kokatu Brasil munduko mapan, eta Hego Amerikako mapa politikoan; seinalatu eta koloreztatu mugan dituen herrialdeak.

2. Ideien jasa bat bota ezazue Brasili buruz dakizutenaz eta bitxiena iruditzen zaizuenaz: feijoada, caipiriña, Amazonas... Talde bakoitzak gai bat aukeratu, eta informazioa bilatu, gero ikaskideei azaltzeko.

3. Brasilgo musika eta erritmoen artean, berezietako bat ezagutzea proposatzen dizuegu: *choro* deritzana.

Choro (portugesez, *negarra*), *chorinho* izenez ezagunagoa, herri musikako genero instrumental bat da eta 130 urte baino gehiago ditu. Badirudi *choro* hori Brasilgo lehen musika herrikoi urbanoa dela; musika hori jotzea oso zaila da. Interpretateak inauterietako jaietan elkartu ohi ziren, eta gero urte osoan zehar ere bai, kalean joz gozatzera. Izenak izen, oso erritmo alai eta bizkorra da; parte hartzaileek inprobisatu egiten dute trebezia handiz; horretarako asko landu behar dute teknika, instrumentua erabat menderatu arte.

Brasildar *choroan* erabili ohi diren musika-tresnak: zazpi sokako gitarra, gitarra, mandolina, flauta, cavaquinho eta panderoa.



Zer beste musika-tresna daude Brasilen? Jarri mapan, non jotzen diren kontuan hartuta.

4. Brasilen gaur egun dauden mugimendu eta estilo hain ugariak aurkitzera gonbidatzen zaitugu: samba, capoeira, lambada, axé (Carlinhos Brown), batukada...

Talde bakoitzak estilo bat aukeratuko du eta ikerketa bat egingo du (erritmoa eta konpasa barne) eta ikasgelako besteei azalduko die, ikus-entzunezko materiala erabiliz.

Material erreziklatuekin, perkusio-tresnak egin ditzakezue, eta irakasleen laguntzaz eta pixka bat entseiatuz, batukada bat osatu.

BATUKADAKo musika-tresna nagusiak:


Surdoa: bonbo bat da, sanbaren oinarria. Zabala baino luzeagoa izaten da, eta zurezko mailu edo feltro batez jotzen da, beste eskuaz erritmoa osatuz (partxea itzaliz edo soinua egiten utziz). Plastikozko bidoiak ere erabil daitezke.

Kaxa: danborraren familiako tresna. Larruzko edo plastikozko bi partez, metalezko edo zurezko azalez eta bordoi batzuek osatua dago. Batukadan, zurezko makilez jotzen da. Metalezko zakarrontziak ere erabil daitezke.

Repinike: danbor modukoa, akutua; esku batean makilaz eta partxean beste eskuaz erritmoa osatuz jotzen da. Soloak egiten ditu, eta sanbaren sarrerako eta irteerako deiak. Metalezko zakarrontzi txiki eta akutuak ere erabil daitezke, besteen gainetik entzun daitezzen.

Zintzarri agogoak: bi edo hiru zintzarri konikoz osaturik daude, metalezko barilla malgu batzuek loturik; kirten gisa ere balio dute. Zurezko makilez edo metalezkoek jo daitezke. Beirako botilak ere erabil daitezke, luzera eta lodiera desberdinetakoak, grabeak eta akutuak lortzeko.

Txokalloa: metalezko, zurezko edo banbuzko tutua, ertzetan itxia eta haziz edo hartxintzarrez edo perdigoiez edo lekari lehorrez bete. Tutua astinduz jotzen da, esku batez edo biz, besoa aurrera eta atzera mugituz. Plastikozko botilak ere erabil daitezke, hartxintzarrez, arrosez edo dilistaz beterik.



5. Río de Janeiroko inauteria munduko ospakizunik garrantzitsuenetako bat da. Zer beste inauteria ezagutzen dituzu? Nolakoak dira zure hiri edo herrikoak? Interesgarria litzateke Río de Janeiroko inauteria Veneziakoarekin alderatzea. (ikus RE notako zatia 17. orrialdea)

6. Ezin amaitu bidaiak hau planetaren birikan Amazonasen, geldialdi bat egin gabe. Marrastu Amazonasen ibilbidea, jaiotzen denetik itsasoratzen deneraino, igarotzen dituen herrialdeak esanez. Egin collage bat Amazonaseko flora eta fauna tipikoarekin. Landu Amazoniako oihaneko animaliak ahotsez eta gorputzez. Eztabaida bat proposatu, mahai gainean jarriz ingurugiroaren babesa, planetaren suntsipenaren arrazoiak, kutsadura, basamortuak ugaritzea...

LAVAPIÉS, MADRID

2017

Lavapiés Madrileko auzorik zaharrenetarikoa da. Antzina, auzo judua zen, erlijio horretako pertsona asko bizi baitziren han. Izena iturri batetik datorkio; han garbitzen zituzten oinak juduek beren elizara sartu baino lehen. Bestalde, ezagunak dira auzo horretako korralak, solairu txikiko eraikuntzak, erdiko patio baten inguruan. Urte askotan, auzoa nahiko bazterturik egon zen politikoki eta sozialki, eta hartan inspiratu ziren artista asko. Laurogeiko hamarkadan birmoldaketa hasi zen, proiektu sozial eta komunitario ugari martxan jarritz. Gaur egun, antzetzoki ugari dago han, zine erakustadiak, azokak eta liburudenda asko. Lavapiésen nazionalitate eta kultura ugaritako jendea bakean bizi da elkarrekin.

“Jolaserako bertsoak” GLORIA FUERTES (Madril, 1917-1998)

Lavapiés auzoan jaio zen, familia apal batean. Aita atezaina zuen eta ama jostuna. 3 urterekin ikasi zuen irakurtzen, eta 5ekin idatzi zuen bere lehen ipuina, eta marraztu ere bai. 14 urterekin, bere lehen poema idatzi zuen, “Infancia, juventud y vejez”, eta 17rekin bere lehen poema-liburua, “Isla ignorada”. Oso zaletasun bitxiak zituen bere garairako: hockeya eta bizikletan ibiltzea. Gaztaroen gerra bizi izanak arrasto ezabaezina utzi zion. Haren idatzietako gai nagusiak dira: maitasuna, maitasun eza, bizitza, gerra eta bakea. Chelo Sánchez Serrano eta Phyllis Turnbull izan ziren haren maite handiak. Phyllis-ekin batera eskola bat sortu zuen, Chozas de la Sierra-ko haur guztiak eskolatzeko, eta herrialdeko lehen liburutegi ibiltaria sortu zuen. Beka bati esker, EEUUra joan zen eta hiru urte eman zituen han espainiar literaturako irakasle gisa. Itzultzean, idazten eta poemak erreztatzen jarraitu zuen. Sari ugari irabazi zituen, besteak beste Juan March saria. 70eko hamarkadan ospetsu bihurtu zen, telebistako haur-saioetan parte hartzeagatik; handik aurrera, haurren poeta bihurtu zen”.



Lavapiés, 1962ko uztailearen 13a.

“Madril, Madril, Madril...! Arrazoi handia zuen Gloria Fuertesek esan zidanean Madrilez maiteminduko nintzela. Nire kontzertu batean ezagutu genuen elkar, eta geroztik haren bi errezitalditan egin dugu topo. Zoragarria da! Atzo Pradoko museoa topatu nuen. Kafetegian zegoen, musu-paper batean pareatuak idazten. - Madril uztailean labe bat da -esan zidan-. Ondo egin duzu, Liberto: hemen egoten da ongien, artez inguratutik. Nazioarteko Institutuan klaseak ematen ari zela esan zidan, maiteminduta zegoela, beti bezala, eta ea noiz jarriko nion musika haren poema bati. Eta hemen ngo. Ea zerbait konposatzen dudan poeta bikain haren mailakoa”.

POESIA ETA MUSIKA

Poesia eta musika uztartzea ez da berria. Historian zehar, askotan egin da halakorik, eta kanta zoragarriak eman ditu horrek. Hemen daukazue zenbait kanta; horietan, rock taldeek idazle ospetsuen poemak hartu eta rock-aren erritmoetara egokitu dituzte.

<https://rockologia.wordpress.com/2015/11/08/rock-y-poesia-diez-poemas-pasados-por-la-guitarra/>

- 1. Irakasleei proposatzen** diegu link horretako bideoak gainbegiratzea, eta gelari ongien dagokiona aukeratzea. Gero, poema idatzirik emango diete ikasleei, irakurtzeko, errezitatzeko, aztertzeko, eta egilearen biografia ezagutzeko. Ondoren, bertsio musikatua entzun, eta eztabaida bat egingo da ea zer sentitu duten adierazteko. Nola jaso dute? Harrigarria da poemarekin doan musika? Nola gustatzen zaie gehien poema, bakarrik ala musikarekin?
- 2. Orain ikasleen txanda da.** Gela osoari interesatzen zaion poema bat hartu, irakurri, esateko modua landu, eta orobat erritmoa eta lerro bakoitzaren intonazioa; gero, taldeka, doinu bat eta erritmo bat sortu poema horri. Musikako irakasleak aberastuko ditu proposamenak tresna baten bidez, eta kontzertu hipotetiko baterako gai bihurtu ditzake.
- 3. Amaitzeko, kantaren bideoklip** bat egin dezakezue, grabatu, eta, zergatik ez, egun batez rock izar bihurtu.

BERE GARAIRAKO EMAKUME AURRERATUA

Ikusi ahal izan duzue, osaba Liberto izan zen Gloria Fuertesen talentua, inteligentzia eta poesia miretsi zituen gizon bakanetakoa.

Garai hartako gizon gehienek (batzuk idazleak eta poetak) kritikatu egin zuten, inbidia hartu zioten, eta boikot egin zioten. Ez zegoen ongi ikusia emakume batek etxeko lanak utzi eta hockeyan jolastea edo idaztea edo errezitaldiak antolatzea. Batzuk alde guztietatik saiatu ziren haren lana ezaguna izan ez zedin, eta gaur egun ere jende askok ez du ezagutzen Gloria maiteak helduentzat idatzitako poesia zoragarria. Hala ere, osaba Liberto ez zen izan bakarra haren jeinua eta ahalmena aitortzen. Camilo José Cela eta Francisco Nieva eta beste batzuek ere miretsi zuten, goretsi eta errespetatu.

- 1. Ikasleek interneten Gloria Fuertes** argazkiak bilatzera gonbidatzea proposatzen dugu, haren bizitzako zenbait unetan oinarrituta, idazlearen irudia bereganatu dezaten.
- 2. Interesgarria litzateke eztabaida sortzea** gelako neska-mutilen gustuei buruz (kirol arloan eta bestelakoetan), kideen bertute eta ahalmenak aitortzeko gai garen aztertuz, izan neska, izan mutil, izan beste.

3. Gogoeta egin dezakezue neska-mutilek ikastetxean erabiltzen dituzten espazioei buruz (askotan, mutilek espazio handiagoak erabiltzen dituzte), eta genero-berdintasunaz gogoeta egiteko beste zenbait egoerari buruz.

4. Gloria Fuertesen “Con un cero” poema lantzea proposatzen dizuegu, eta poeta bihurtzea. Poema irakurri ondoren, zenbait errima asmatu ditzakezue, nahi dituzuen bezainbat zero hautatuz. Adibidez:

Con cuatro ceros se puede hacer un coche / Lau zerorekin auto bat egin daiteke
que nos lleve despacito por la noche. / gaez eraman gaitzan izan gabe neke.

Con cinco ceros hacemos una flor / Bost zerorekin, berriz, lorea
con cuatro pétalos alrededor. / lau orrikoa eta dotorea.

Con un cero

Con todo se puede hacer algo.
Hasta con un cero
- que parece que no vale nada
se puede hacer la Tierra

una rueda,
una manzana,

una luna,
una sandía,
una avellana.

Con dos ceros
se pueden hacer unas gafas.

Con tres ceros,
se puede escribir:
yo os quiero.

Zero batekin

Edozerekin egin daiteke zer edo zer,
zero batekin halaber,
nahiz ez dirudien ezer,
Lurra daiteke ager,

Edo gorpila
edo sagarra
ilargi bat, sandia bat
edo hurra.

Bi zerorekin, betaurrekoak
edonork egin bitza.
Hiru zezorekin, berriz,
“osoro” maite-hitza.



(REMER), CAMPIELLO DEL REMER DE VENECIA

1962

Venezia Italiako Veneto eskualdeko hiriburua da. Duela mila urte eraiki zen igerian dagoen hiri zoragarria, ehun uharte baino gehiagoren gainean, 150 kanalekin eta 400 zubi baino gehiagorekin. Hiri independentea zen, eta urte luzetan kontrolatu zituen Adriatiko itsasoko ibilbideak. Urtero milaka eta milaka turistak bisitatzen dute; hango kaleetan mundu desberdin bat topatzen dute, ia magikoa. Ospetsuak dira hango inauteriak, eta ekintza kultural ugari ospatzen dira, era guztietako jaialdiak, eta era guztietako museo eta erakusketak ikus daitezke, nazioarte mailakoak.



“Hamabi printzesa dantzariak” GRIMM ANAIAK

Jacob (1785-1863) eta haren anaia Wilhelm (1786-1859) Hanau-n jaio ziren, Alemanian; Phillip Wilhelm Grimm eta Dorothea Zimmer gurasoek izandako sei anai-arreben arteko bi zaharrenak ziren.

Txikiak zirela hil zitzaizen aita; haren bideari jarraiki, Jacob eta Wilhelm Zuzenbidean lizentziatu ziren, baina gero Jacob-ek alemaniar filologia ikasi zuen, eta Wilhelm-ek Erdi Aroko Literatura. Titulua atera zutenean, liburuzain eta irakasle izan ziren Gotingako eta Berlingo unibertsitateetan.

Jacob eta Wilhelm-ek ipuinak bildu zituzten, tradizio ugaritakoak, eta argitaratu egin zituzten, Etxeko haur ipuinak izenburuarekin. Hala ere, bilduma hura munduan zehar beste izen batekin da ezaguna: *Grimm anaien maitagarri-ipunak*.

Kontakizun horien transkripzioan, Grimm anaiek istorio bakoitzaren jatorrizko aldaera gorde zuten, kontakizunaren bizitasuna eta freskotasuna mantenduz eta berregite literarioaren tentazioari uko eginez.

Bilduma horren ondoren, germaniar legenda historikoen beste bat osatu zuten, *Alemaniar legendak* izenburuarekin. Berlingo unibertsitatara iritsita, zientzietako akademiko gisa beste asmo handi bati ekin zioten: Alemaniar Hiztegia, oso lan aberatsa; lehen alea bakarrik lortu zuten argitaratzea.

1975ko abenduaren 4a

”Gaur, 1975eko abenduaren 4an, Veneziara heldu naiz. Oso goiz zen, elurra ari zuen mara-mara, eta San Marcos plaza huts-hutsik zegoen. Plazaren erdi-erdian jarri naiz, hiriaren soinuari adi. Hamar-hamarretan, San Marcoseko Campanilleko kanpaiek atera naute neure baitatik. Oinez abiatu naiz, norabide jakinik gabe. Bat-batean ate eder batek erakarri du nire arreta, erdi irekirik baitzegoen. Zirrikitutik sudurra sartu dut, eta ezin nuen sinetsi ikusten ari nintzena; milaka liburu gondolatan, baineratan eta txalupatan pilatuak! Acqua alta liburutegia zen, Veneziako zaharrenetakoa. Jakina, barrura sartu naiz, liburuzaina agurtu, eta liburu bat hartu dut aliritzira. Hura ezustea! Grimm anaien liburu bat zen. Gero, beste bat hartu, eta hura ere Grimm anaiena. Hirugarren bat hartu, eta hura ere Grimm anaiena!

GUSTUKOAK DITUZU IPUINAK?

Esaten ari ginen bezala, etxean nahiz liburutegian nahiz eskolan kontatu edo irakurri dizkiguten ipuin tradizional asko Grimm anaiek bildu zituzten...

- 1. Ilara batean, goitik behera,** Grimm anaien titulurik ezagunenak zerrendatzea proposatzen dizuegu; beste ilara batean, berriz, zenbat pertsonak irakurri duten haietako bakoitza. Zein da gehien irakurria izan den ipuina? Zein da gelako best seller-a?
- 2. Gero, ipuin irakurriena kontatu dezakezue** denon artean eta dramatizazio bat egin. Interesgarria litzateke ipuinaren bertsio propioa egitea. Gero, antzerki bat egin dezakezue harekin, zuzenean edo txotxongiloak nahiz txinatar itzalak.
- 3. Idazle ere bihur zaitezkete eta zuen ipuin propioa asmatu.** Irudimena lantzeko eta istorioaren egoera berriak asmatzeko, Gianni Rodariren *Fantasiaren Gramatikako* teknikaren batzuk erabiltzea proposatzen dizuegu.
- 4. Egokia irudituz gero, aurten, Liburu Eguna** Grimm anaiei dedikatu daiteke, eta haiek hobeto ezagutzeko zenbait ekintza asma ditzakezue.

VENEZIA ETA INAUTERIA

Kontatu dizuegun bezala, inauteriagatik ere ospetsua da Venezia. Gustatuko litzaizueke denboraren makina batean sartu eta Veneziako inauteria bere gorenean zegoen garaira iristea?


1. Ezagutu hiria:

- erabili internet eta eskolako liburutegia Venezia ezagutzeko.
- alderatu Venezia zure hiriarekin: antzekotasunak, desberdintasunak.
- argazkiak, koadroak, bideoak erabiliz, egin hiriaren deskripzio zehatz bat.
- Bilatu Venezian oinarrituriko musika: Veneziako gondolariak (Mendelsson), Venezia zu gabe (Charles Aznavour), Venezia, (G Gizonak)...

2. Gora inauteria!

Beharbada ez dakizue XVIII. mendean inauteriak sei hilabete iraun zuela, eta gainera jai ofizialak ospatu zirela, eta jokoak, kontzertuak, erlijio-ospakizunak eta opera. Jakina, kutura-jardunbide oparo horrek atzerriko bisitarien mirespena eta inbidia piztu zuen.

Nobleak mozarrotu egiten ziren, aurpegia ere estalita, inor ohartu gabe herriarekin nahasteko. Handik aurrera, maskarak dira hango inauteriko osagai garrantzitsuena.



1797an, Napoleón Bonapartek inauteria debekatu egin zuen, eta 1979 arte ez zen berriro ospatu ofizialki. Gaur egun jaiek hamar egun irauten dute. Gauetz, konpartsek (*compagnie della calza*) desfileak egiten dituzte hirian zehar, eta aretoetan dantzaldiak ospatzen dira, goizeko ordu txikiak arte.

Erabiltzen dituzten jantziak XVIII. mendekoen erakoak dira; maschera nobile izenekoak erabiltzen dira batik bat (kareta zuria, zetazko jantzi beltza eta hiru puntako kapela. Maskarak batez ere txuriak, zilarreztatutak edo urreztatutak dira, baina 1979tik aurrera era guztietako koloreak gehitu zaizkie jantziei eta apaingarriari.

2.1. Veneziako inauteriaren historiari buruz eskaini dizuegun informazioa irakurri ondoren, zuen maskara veneziarra egitea proposatzen dizuegu. Paper *maché* erabil dezakezue (egunkari bat zatikatu eta uretan eta itsaskitan bustia), edo igeltsuzko bendak, uretan bustiak (aurpegia hidratazio-ukenduz igurtzi, eta bendak ipini, moldea egiteko). Dekorazio gisa, margo zuria edo purpurina erabil dezakezue.

2.2. Eta dantzan hasten bagara? Hona hemen esteka bat, gaur egungo dantza bat ikus dezazuen. Pausoak ikas ditzakezue, edo zuek asmatu bertsio berriak.

<https://www.youtube.com/watch?v=GjOufNpesBA>

2.3. Maskara veneziar asko Commedia dell'Arte-ko pertsonaietan oinarriturik daude. Pertsonaia bakoitza bere deskripzioarekin lotzeko gai zarete?

Arlekina

Carlo Goldoni-ren *Bi nagusiren zerbitzaria* antzezlaneko morroia bezala jantzita ibiltzen da beti; jantzia koloretako adabaki desberdinez osatua dago, eta kapela zuri bat eramaten du, eta maskara beltz batek aurpegiaren erdia soilik estaltzen dio.

Colombina

Commedia dell'Arte-ko neskame gaizto zoragarri bat da, pertsonaia komikoa, eta ez beti bertutetsua. Mozorroa xumea da, kapela zuri bat erabiltzen da eta ia inoiz ez maskararik.

Pulcinella

Mozorroak bata zuri bat du, gerrikoarekin, kapela luze bat ere bai, eta maskara beltz bat sudur luze kakoarekin. Arlekinak bezala, morroia da, batzuetan bizkorra, beste batzuetan makala, ausarta edo koldarra, eta adierazkortasun izugarria du.

Bauta

Mozorro beltza daraman pertsonaia; aurpegia estaltzeko, zapi beltza darama, eta hirugarreko beltza ere bai. Maskarak gizonentzat zein emakumeentzat balio du. Egokia da inork ez ezagutzeko, ahotsa ere aldatu egiten baita, sudurraren pareko zulo estuagatik.



SOLINGEN, ALEMANIA

1997

Solingen Alemaniako hiri polit eta xume bat da, Renania eskualdean kokatua, Westfalia Iparrean. Hiriak oraindik Erdi Aroko itxura gordetzen du. Erdi Aroan errementari handiak sortu ziren han, eta garaiko ezpatarik onenak egiten zituzten. Gaur egun, Solingen ospetsua da munduko kirurgia-tresnarik, aiztorik eta guraizerik onenak egiteagatik. Aiztoen eta labanen hiritzat jotzen da, eta altzairuzko arima duela diote, kalitate handiko altzairua eta doitasun handiko metalurgia bikaina baitute. Hantxe jaio zen Pina Bausch artista handia ere.

“Edozertarako plan bat egiten zuen emakumea” URSULA WÖLFEL (Duisburg, Alemania, 1922–2014)

Alemaniar Filologia ikasten hasi zen, Pedagogia eta Historiarekin batera, baina Lehen Mundu Gerrak eten zituen haren ikasketak. 1943an ezkondu, eta senarra frontean galdu zuen. Alaba bakar-bakarrik hazi eta aurrera irten behar izan zuen. Gerra ostean, eskolako laguntzaile izan zen. 1958an ikasketak amaitzea lortu zuen, aldi berean Darmstadt-en pedagogoa eta hezitzaile berezi lanak eginez. 1960an, Haur eta Gazte Literatura ikertzeko postu bat lortu zuen, eta 1961etik aurrera idazteari eman zion. Sari ugari jaso zituen, besteak beste Alemaniako Gazte Literatura saria 1962an eta Alemaniako Haur eta Gazte Literaturako sari berezia idazlan guztiengatik.



Solingen, 1988ko maiatzaren 25a

“Gaur egun bizi-bizia dut. Goizean, Solingenera nidekarren trenean, begiraleak esan digu berandu iritsiko ginela. Egia esan, ez dit axola handirik; paisaia harrigarria da, eta treneko leihorik begiratzea oso entretengarria da. Solingenera iritsi garenean azkenean, geltokiko kioskoaren erakusleho parean gelditu naiz, han zeuden kartelak irakurtzeko. Batzuk oso deigarriak ziren;

- “Deutsches Klängenmuseum-ean bilduma berri bat”.
- “Bigarren eskukoak; labanak, daga eta txoritegiak saltzen dira, egoera onean”.
- “Müngsten Bridge berriro zabalik”.
- “Maiatzak 25, Accept-en kontzertua, haiek jaiotako hirian”.

Hotelera iritsi berria naiz eta hiri honetan egunak nola antolatuta pentsatu beharra daukat. Ez dut galdu nahi gaur gauko kontzertua, ez horixe. Interesgarria izango da gaualdia”.

IKUSI DUZU KARTEL HORI?

Kartelaren helburua laster izango den gertaera bati buruzko informazioa ematea da, baina, horrez gainera, kartel on batek atsegina izan behar du estetikoki.

Lanbidez kartelak diseinatzen eta egiten jarduten diren pertsonak gertaera jakin baterako irudiak bilatzen edo sortzen aritzen dira, letra tipo egoki bat bilatzen dute, eta osagai guztiak modu harmonikoan kokatzen dituzte ondorio eraginkorrago bat lortzeko.

Azken batean, publizitate-kartel on bat diseinatzeko, kontuan izan behar da:

- Informazioa: Artistaren izena, gertaeraren data eta lekua letra handi eta argiz jarri behar dira, urrundik ikusteko moduan.
- Irudia: Testuarekin batera doan argazkia, ilustrazioa edo marrazkia oso iradokitzailea izango da, ibilitariaren arreta erakartzeko; horregatik, garrantzitsua da ondo aukeratzea koloreak, irudiaren tamaina eta kartelean duen kokapena.

1. Diseinugile grafiko bihurtzea nahi?

Hona hemen inspiratzeko zenbait kartel.



2. Bikoteka, kartel bat diseinatu dezakezue, artista gogokoenaren kontzertu batera gonbidatuz.

Kontuan izan ikus-entzunezko hizkuntza publizitarioak duen garrantzia. Gogoratu jardunbidearen hasieran eman dizuegun informazioa.

3. Kartelak amaiturik, ikastetxeko korridore batean erakusketa jar dezakezue eta beste geletakoak gonbidatu Eskolako Kartelen Aldi baterako 1. Erakusketa ikustera”.

GITARRAJOLE OSPETSUAK

Beti galdetu izan dugu ea osaba Libertok amesten ote zuen rock izar handi bat bihurtzea, edo zoriontsu bizi ote zen ezezagun izanik.

Rock-aren historian zehar, ugari izan dira gitarrista eredugarriak, teknikagatik, sormenagatik eta kalitateagatik. Hona hemen haietako batzuen karikaturak:



Jimi Hendrix



BB King



Yngwie Malmsteen



Carlos Santana

1. **Gitarrajole handi horien biografia** azter dezakezue pixka bat, hobeto ezagutzeko.
2. **Agian haien kanta ospetsu batzuk entzun nahiko dituzue**, edo kontzertu entzutetsuren bat ikusi, gitarra bakoitzetik irteten diren erritmoak, akordeak eta soinuak entzuteko.
3. **Oso dibertigarria litzateke** komiki zerrenda bat sortzea, gitarrajoleak protagonistatzat hartuta.

Komiki zerrenda bat (*cómic strip*) istorio txiki bat da; egoera bat gehienez lau biñetatan aurkezten du, horizontalki. Marrazkilari bat behar da (hizkuntza ikonikoa) eta gidoilari bat (hitzezko hizkuntza), baina pertsona berak egin ditzake biak. Izenak berak dioenez, umorezkoak izan daitezke, baina ez nahitaez. Hemen duzue Mafaldaren komiki-zerrenda bat:



EFEMERIDEAK

Ikusten duzuen bezala, osaba Libertok eguneroko bat zeraman, eta hari eskerrak bidaiak guztiak berrosatu ditugu. Data bat garrantzitsua izan daiteke, egun hartan gertatutakoagatik. Adibidez, 1988an, osaba Libertok Solingen bisitatu zuenean, Seuleko XXIV Joko Olinpikoak ospatu ziren. U2-k Urteko Albumaren estatuatxoa irabazi zuen Grammy 1988 Sarietan 'The Joshua Tree' lanarekin, *Rain man* filmak arrakasta lortu zuen Oskar sarietan eta Perico Delgadok Frantziako Tourra irabazi zuen. Interesgarria, ezta? Gainera, Espainian Felipe Gonzalez zegoen agintari, eta EEUUko presidentea Ronald Reagan zen.

- 1. Zuen jaioteguna aukeratzea proposatzen dizuegu, eta urte hartan izandako gertaera garrantzitsuak bilatzea.**
- 2. Bestalde, interesgarria litzateke etorkizuneko data bat pentsatzea, eta zuen gustuko zer gertaera izango diren imajinatzea.**



SIBAY, ERRUSIA

1975

Sibay, Errusiako Bashkortostán errepublikako hiri bat da, Europaren eta Asiaren arteko muga, Hegoko Ural mendien ekialdean. Sibayko gauzarik ospetsuena antzinako kobre-meategi bat da, hiriaren kanpoaldean. XX. mendearen bigarren zatian, meategiak 2.000 metroko diametroa zuen eta 500 metroko sakonera; garrantzi handia izan zuen eskualderako. Gaur egun, mineralen konbustioak hiria sufre-usain txarreko gasez estali du, eta instituzioek bi haizemaile handi jarri behar izan dituzte meategiaren ertzean.

“Theremin & theremin” PASADAS LAS 4

Pasadas las 4-ri buruzko informazioa gida honen hasieran topatuko duzue. Gainera, interesgarria deritzogu theremina asmatu zuenaren datu biografiko batzuk ezagutzea.

LÉON THEREMIN (San Petesburgo, 1896 - 1993)

Txikia zenetik, musika eta elektrizitatea zituen gustuko. Biolontxelo josten zuen, baina antzeko tresna bat asmatu nahi zuen, arkurik gabe jotzeko modukoa. Egin zituen ikerketetatik eterófonoa asmatu zuen, nazioartean theremin izenez ezagutzen dena.

Instrumentu horrek berebiziko ospea izan zuen, eta egilea Leninekin, Einsteinekin eta Robert Moog ingeniariarekin bildu zen. Leonek bere asmakuntza kontzertu eta ospakizun zenbaitetan aurkeztu zuen Europan eta Estatu Batuetan, eta 1928an New Yorkeko Filarmonikarekin kontzertu bat eman zuen.

30eko hamarkadan, ikertzen jarraitu zuen, eta *Rhythmicon*-a asmatu zuen, Henry Cowell konpositore estatubatuarrek eskatuta.

1938an, Sobietar Batasunera itzuli zen, ikerketa erradioelektronikoan jarraitzera, eta “gauza” izenekoa asmatu zuen, energia-iturririk gabeko entzungailua, soinu-uhinak argiaren erreflexua bezala ispilu baten modura igortzen dituen. Hala lortu zuen, denbora batean, estatubatuar enbaxadorearen egoitza espialtean.



Sibay, 1997ko apirilaren 3a.

“Atzo egun zirraragarria izan zen. Nafarroako herri batean izan nintzen, Kultura Etxean, nire iloben estreinaldi batean. Asko gustatu zitzaidan ikuskizuna. Oso langileak dira, talentua ere badute, eta etorkizun dibertigarria izango dute, antzerki eta musikaz bete. Besarkada askorekin esan genion adio elkarri, gaur Errusiara baino. Badira lau urte Leon Theremin hil zela, bere izena daraman tresna harrigarri horren sortzailea; Moskuko hilerrian hari bisita bat egiteko ilusioa dut. Hala ere, bidaiaren amaieran egingo dut hori, aurrena Sibayko kobre-meategiak ikusi nahi baititut. Eta hemen nago, iritsi berria. Afaltzera noa eta ondo lo egitea espero dut. Bihar irtengo naiz meategi ospetsu horiek ezagutzera; jakinmin handia dut. Denek diote ikusgarriak direla”.

EGIA ALA GEZURRA

Gogorutzen SI sokatik irteten zen ipuina? Istorio hura Leon Theremin-en benetako biografian oinarriturik dago; bere garaian ospe handia izan zuen. Ipuinean agertzen diren datu batzuk Leon Thereminen benetako biografiatik hartuak dira, baina beste batzuk egileek asmatu dituzte.

1. Egin dezagun oroimen-lan bat. Guk jarritako galderei erantzun behar diete ikasleek, kontzertuan entzundako datuak oroitzen saiatuz. Gero, Leon Thereminen biografia irakurriko dute, eta erantzunekin alderatu, ea zer den egia eta zer ez.

Theremin musikaria zen?
Flauta jotzen zuen?
Theremina asmatu zuen?
Einsteinekin eta Leninekin bildu zen
asmakuntza erakusteko?
Inoiz gelditu ote zen lo parke bateko
aulki batean?
Rhythmicona ere asmatu al zuen?
New York-eko Lincoln Center-en eman
ote zuen kontzertu bat?



THEREMINERAKO TEKNIKA BERRIAK ASMATUZ

1. Gustatuko litzaizueke zuek asmatutako theremin batekin kontzertu bat ematea? Kartoi eta egunkariekin egin dezakezue theremin bat, antena bat gehitu (puntua egiteko orratz bat adibidez, edo zurezko makilatxo bat edo bururatzen zaizuen beste zerbaitekin). Egin eta gero, nota bakoitzari zeinu bat eman behar zaio eskuko hatzekin.

Adibidez:

DO- erpuruak jasota

RE- erpuruak eta erakusleak jasota

MI- erpuruak eta erakusleak eta luzeak jasota

FA- erpuruak eta erakusleak eta luzeak eta nagiak jasota.

SOL- erpuruak eta erakusleak eta luzeak eta nagiak eta txikiak jasota.

LA- eskuak gurutzatuta

SI- esku-ahurrak aurrez aurre

DO (akutua)- esku ahurrak askatu eta aurrera begira.

Bikoteka, kontzertu bat presta dezakezue; batek eskuez mugimenduak egin, eta adierazitako notak jo beste batek. Esandako notak intonatzeko gai ez bazarete, flauta edo xilofonoa erabil dezakezue. Hori ere ezin bada, bi lagunek keinuak egin, eta irakasleak joko ditu notak teklatuan, soinu bakoitza bere notarekin lotzen ikas dezazuen.

Ikasgelako mailaren arabera, jardunbide hau arreta lantzeko eta notak ezagutzeko erabil daiteke besterik gabe. Kasu horretan, bikoteetan batek egingo ditu keinuak, eta besteak notak esango ditu.

Eta notei neurria jartzen badiegu?

NOTEN NEURRIAK ETA ZEINUAK EZAGUTUZ

Musika-eskalako zazpi notetako bakoitza izan daiteke biribila, zuria, beltza, kortxea edo semikortxea.

Badira beste batzuk ere: karratua, fusa, semifusa, garrapatea eta semigarrapatea, baina ez dira beharrezkoak oraingoz.

Noten irudiek eta zeinuek soinuaren iraupena adierazten dute.

Txuriek eta denbora txikiagokoek makila tente bat dute (plika) notaren eskuinean (goranzkoa bada) edo ezkerrean (beheranzkoa bada).

Nota pentagramaren hirugarren lerroaren azpian dagoenean, plika gorantz jartzen da eskuinean, eta gainean dagoenean, beherantz ezkerrean. Nota hirugarren lerroan badago, plika beherantz nahiz gorantz ager daiteke. Kortxeteak kortxeek edo balio gutxiagokoek izaten dituzte.



1. Orain badakizue nola jarri erritmoa notei; aurreko jardunbidean osatu duzuen noten sekuentziari konpas bat jartzea proposatzen dizuegu (2/4, 3/4, 4/4...) eta pentagraman idaztea, nahi dituzuen iraupenak erabiliz.

2. Ikasle bakoitzak bere doinua jo dezake flautaz, xilofonoaz edo dagokionaz.

MUSIKA BERA, SONORITATE DESBERDINAK

Kontzertu egunean theremina entzun zenuten, eta ziur aski harritu egin zineten, oso soinu berezia ateratzen baitu. Giza ahotsaren antz handia du, ezta?

1. Ikasleak “Somewhere Over the Rainbow” bertsio originalean entzutera gonbidatzea proposatzen dizuegu; Judy Garland-ek kantatzen du Ozeko aztia filman. Audioko bertsioa soilik eskaintzea gomendatzen dizuegu.

<https://youtu.be/PSZxmZmBfnU?list=RDPSZxmZmBfnU>

2. Ondoren, interesgarria litzateke kanta horren beraren audioa ipintzea, thereminez joa.

<https://youtu.be/K6KbEnGnymk>

Ezagutzen dute tresna? Zer iruditzen zaie? Ba al du antzik thereminak Judy Garland-en ahotsarekin? Sentsazio desberdinak eragiten al dizkiete?

3. Doinuaren beste bertsio batzuk bilatzea iradokitzen dizuegu (badira flautarako, ukelelerako eta abar), sonoritate mota ugari entzutearren. Adibidez, hemen duzue gitarra elektriko egindako bertsio bat.


<https://youtu.be/ytvzMr1N1m8>

Zer moduz bertsio hori? Zein gustatu zaie gehien? Zergatik?

4. Badakizue 50 hamarkadan askotan erabili zela theremina izu-film eta zientzia fikziozko batzuetako soinu-bandetan, giro tetriko bat irudikatzen laguntzeko ikusleari, edo bizi extralurtar harrigarri bat imajinatzen laguntzeko?

“**The Day the Earth Stood Still**” -eko soinu-bandak eman zion hasiera zinean thereminaren soinu bereziari.

Hona hemen film baten zati bat, non theremina jotzen baitute zuzenean.



<https://youtu.be/5VQgImg15sQ>

5. Zinegile bihurtzea proposatzen dizuegu, eta animaziozko larburmetraia labur-labur bat egitea. “**The Day the Earth Stood Still**”-eko zatiaren soinu-banda berbera erabil dezakezue, taldeka istorio labur bat sortzeko.

Protagonistak plastilinaz egin daitezke, eta agertokiak eta dekoratuak material erreziklatuz egin daitezke.

Argiztapena ere landu dezakezue: zelofan paperez estalitako linterna batzuek oso giro erakargarri sor dezakete.

Orain grabatzea besterik ez da falta: Argiak, kamera... ekin! Hastera doa filmaketa!

MISSOURI, ESTATU BATUAK

1988

Amerikako Estatu batuak osatzen dituzten 50 estatuetakoa bat da Missouri. Mendebalde erdialdean dago, eta Missouri eta Mississippi ibaiak zeharkatzen dute. Hiriburua Jefferson City da, eta hiririk populatuena Kansas City, eta hiririk garrantzitsuenak Sant Louis. Mendebaldeko atea deritza Missouri, handik abiatzen baitziren lehenbiko kolonoak mendebalderantz. Estuaren izena missouria (kanoak zizelkatzen dituztenak)

zeritzan sioux talde berezi batetik dator; Mississippi eta Missouri ibaietara zihoazen beste ibaien txikiagoen artean bizi ziren missouriak.



“Kapela amorratua” JUAN KRUIZ IGERABIDE (Aduna, Gipuzkoa, 1956)

Lehen Hezkuntzako irakasle izan zen, eta gero Bigarren Hezkuntzako, eta, azkenik, Euskal Herriko Unibertsitatekoa, Euskal Filologia sailean. Mikel Laboa arte-katedra koordinatu zuen unibertsitate horretan. 2003an Euskaltzaindiako urgazle izendatu zuten. *Haur literaturan* egin ditu ikerketak, eta helduentzat ere idatzi du. 1995ean hasi zen argitaratzen haurrentzako poesia, eta hona hemen zenbait lan: *Haur korapiloak* (Pamiela, 1997), *Botoi bat bezala/ Como un botón* (Anaya-Haritz, 1999), besteak beste. Haurrentzako eta gazteentzako liburu ugari argitaratu ditu, eta helduentzat ere baditu poema-liburuak, aforismoak eta nobelak. Zenbait lan itzuliak izan dira beste hizkuntza batzuetara. 2018an Haur eta Gazte Literaturako Sari Nazionala jaso zuen *Abezedario titirijario* lanagatik.



Missouri, 1988ko otsailaren 5a

“Gaur egun nekagarria izan da. Nire egunerokoaren beste orrialde batean kontatzen nuen bezala, EEUUko ROUTE 66 egitea erabaki dut. Gaur, hain zuzen, amaitu dut Missouriko etapa. Red Onion Cafe-n ataldu dut, eta lo seko egingo dudala uste dut. Ez dakit lortuko dudan ROUTE 66ko 3.940 km-ak egitea, baina saiatuko naiz behintzat. Egia esateko, hemen, ohean etzanda, orain arte bizi izandako irudi, sentsazio eta emozioak denak batera datozkit burura; Devil’s Elbo zubia, errepide luzeetatik ikusten diren paisaia zoragarriak, Turner’s Sinclair gasolindegia ospetsua, Gary-ren portxea... Zer zoragarria dena! Hau da nire bizitza, nire gitarra, nire kanta”.

OROITU ETA IRUDIKATU


Bandako partaide batek kontatzen du osaba Libertok preseski Missourin konposatu zuela kontzertuaren amaieran entzun zenuten kanta.

1. "ROUTE 6.6" kanta, gure ikuskizuna ixten zuena, berriro entzutea proposatzen dizuegu.

Gure web orrian, esteka honetan, aurkituko duzue:

ROUTE 6.6 Abestia

Ziur, berriro entzutean, kontzertu-eguna gogoratuko duzuela. Une egokia izan daiteke egun hartan bizi izandako sentrazioak aztertzeko, oroimenean zer informazio geratu zaigun gogoratzeko, eta ikusteko nola bizkortzen zaigun memoria besteen oroitzapenak entzunez. Pauso bat gehiago ere eman dezakegu, eta egun hartan musikak eta ipuinek eragindako sentrazioak oroit ditzakegu. Gero, sentrazioak kartulina batean idatzi eta haiei buruz mintza gaitzke. Entzun eta gogora ekarri eta gero, musika-egitura aztertuko dugu.



ROUTE 6.6

Luis Giménez

Sarrera

1. C G/B Am G F C/E D G 2. F F D/F# G

Mi La Re Sol Si Mi Si Mi

Estrofa 7

C G/D Eb^{o7} Em⁷ F Fm C/G G/F

So-ka ba-koi-tza le-ku bat da le-ku ba-koi-tza is-to-rio-bat

11

C G/D Eb^{o7} Em⁷ F Fm C/G G/F

Gu-re-kin nahi ba - du-zu jo-an Ha-zi-ko zai-zu me-mo-ri-a

Errepika 15

C/G D/F# Fm/Ab C/G C/G D/F# Bb C

Sei pun-tu sei e - rre-pi-de-an sei pun-tu sei sei sei

Sarrera 19

1. C G/B Am G F C/E D G 2. F F D/F# G

Mi La Re Sol Si Mi Si Mi

Estrofa 25

C G/D Eb⁰⁷ Em⁷ F Fm C/G G/F C G/D

Plan be-rrí bat e - ta prin-tze- sak gi-ta-rra ba-te-tik sor-tu - ak_____ O-sa-ba Li-ber

30 Eb⁰⁷ Em⁷ F Fm C/G G/F

to as-ke i-zan zan_____ gi - ta - rra ho - ne - kin bi - de - an_____

Errepika 33 C/G D/F# Fm/Ab C/G C/G D/F# Fm/Ab C/G

Txi mi-no a en-tzu-te - ko hiz-ke tan_____ the-re-min bat (e)ta ka - pe-la he gan
Ber-tso u - ga - ri - jo-la-se an_____ ka-mi-soi bat e - ta bo-toi bat_____

Errepika 37 N.C. A⁷

Sei pun-tu sei e - rre-pi-de- an_____ sei pun-tu sei sei sei_____

Errepika 41 D/A E/G# Gm/Bb D/A D/A E/G# C D

Sei pun-tu sei e - rre-pi-de an_____ sei pun-tu sei sei sei_____

Sarrera 45 D A/C# Bm A 1. G D/F# E A 2. G G E/G# A D

Mi La Re Sol Si Mi_____ Si Mi_____

Partitura hau zuen ikasleen artean banatu dezakezue, parte bakoitza kolore batez margotu dezaten. Musikograma bat egitea proposatzen dizuegu, kolore eta formak erabiliz, marrazki batean ikusteko errepikatzen diren parteak eta haien iraupena. Eskema horrek lagunduko dizue egitura memorizatzen, eta baita kantaren letra ere.

Aztertu dezakezue, bestalde, zer musikograma edo partitura grafiko dauden youtubeen; badira batzuk oso interesgarriak.


Partitura bat dinamiken eta artikulazioen arabera jarraitu ahal izateko, proposatzen dizuegu:

<https://www.youtube.com/watch?v=vcBn04lyELc>
<https://www.youtube.com/watch?v=WksH4eEIL8U>

Partitura noten arabera jarraitzeko eta doinua eta polifonia aztertzeko, gomendatzen dizuegu:

<https://www.youtube.com/watch?v=WksH4eEIL8U>

Eta zer iruditzen zuen musikograma propioa egitea, "ROUTE 6.6"-ren partitura egituraren arabera jarraitzeko? Hona hemen aukera bat:



Partitura margotu dezakezue kolore horiekin, eta letra berri bat ere jar diezaiokezue zati bakoitzari, sarrera eta amaiera gehituz. Honela geratuko litzateke: Intro A - B - C - A - B - C - C - C - Amaiera. Ikusiko duzue nola horrek egitura gogoratzen laguntzen dizuen!

Lan hori bera egin dezakezue gustuko duzuen beste kanta batekin ere!

2. Gogoratzen nolakoa zen gure gitarrajoleak jotzen zuen gitarra elektrikoa? Gitarra elektrikoaz zerbait ikertu nahi baduzue, interneten orri ugari topatuko dituzue hari buruzko informazio bereziarekin. Hala ere, *Cuadros que suenan*: De la vihuela a la guitarra eléctrica kontzertuaren gida didaktikoan agertzen dena baliatzea gomendatzen dizuegu; Juan March Fundazioak gazteei eskaintzen dizkien errezitaldien testuinguruan dago, eta han aukeratu dezakezue zuen ikasleen adinari eta interesei ongien dagokien informazioa.

<https://www.march.es/musica/jovenes/cuadros-que-suenan/guitarra-electrica.asp>

3. Ziur asko, zuetako bakoitzak osaba Libertoren irudi propioa egin du. Gainera, honezkero, gida hau gozatzen duten ia ikasle guztien osaba bihurtua da osaba Liberto. Baina, nolakoa zen osaba Liberto? Nolakoa iruditzen zaizue? Eta, haren gitarra, Stratocaster ala Gibson markakoa zen?

4. Irudimen-ariketa bat proposatzen dizuegu; zuen taldeak osaba Libertoren irudia marraztea. Teknika ugari aukeratu ditzakezue: argizaria, oleoa... eta estilo piktoriko ugari ere bai: naturalismoa, surrealismoa, kubismoa...

“Hombre tocando la guitarra (española)” margolanaren zenbait koadro uzten dizkizuegu, ikus dezazuen nola ideia berbera modu askotan gauzatu daitekeen.



El majo de la guitarra, Francisco de Goya




Hombre con guitarra, Violeta Parra



Hombre con guitarra, Rufino Tamayo



Viejo con guitarra, Pablo Picasso



Osaba Liberto gitarrekin

BIBLIOGRAFIA:

- Juego y desarrollo infantil*, Maite Garaigordobil. Editorial Seco Olea, 1990
- Juegos tradicionales en la Escuela Infantil*, Coor. Pilar López López. Amarú Ediciones, 1992
- Gramática de la fantasía*, Gianni Rodari Editorial: Educaula62
- Preguntario*, Jairo Aníbal Niño. Editorial Panamericana, 1989
- Adivinancero*, Regino Etxabe. Ediciones Hiperión, 2004
- Juguetes infantiles*, Luisa A. Payno. Simancas Ediciones, 1995
- Prácticas de dramatización*, Tomás Motos Francisco Tejado. Editorial La avispa, 1999
- Atlas de percusión*. Manel Ramada. Rivera Editores, 2000

WEB:

- www.solohijos.com
- <https://psicologiaymente.com/tags/educacion>
- www.marianmoreno.com
- www.auladeelena.com

